

2017ko MEMORIA



Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Medicina Legal.



Azaroaren 21eko **236/2012 DEKRETUKO** 11. artikuluko e atalarekin BAT, honako memoria hau helarazten da **Lan eta Justizia Sailera, Justizia Sailburuordetzaren bidez**

Bilbon, 2018ko apirilaren 23an.



Auzitegi - Medikuntzako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Medicina Legal

Zuzendaritza-Dirección
Barroeta-Aldamar, 10
48001 Bilbao

LEGE ESPARRUA.

- 328/1998 DEKRETUA, abenduaren 1ekoa, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea arautzen duena.
- AGINDUA, 1999ko azaroaren 30ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duena, EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundean hutsik dauden auzitegiko medikuen lanpostuak betetzeko.
- AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 21ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, 1999ko azaroaren 30eko Agindua zuzentzeko dena, EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundean hutsik dauden auzitegiko medikuen lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duena.
- AGINDUA, 2000ko martxoaren 8koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Justizia Administrazioako Ofizialen, Laguntzaileen, Agenteen eta Auzitegiko medikuen kidegoetan dauden lanpostu hutsak betetzeko, bitarteko funtzionarioak aukeratu, proposatu eta izendatzeari buruzkoa.
- AGINDUA, 2000ko uztailaren 13koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundeko lanpostu hutsak betetzeko lehiaketarako deia egin zuen 1999ko azaroaren 30eko agindua aldatzeko.
- 309/2000 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Justiziako zerbitzu publikoaren modernizazioari eta horrek Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lan-baldintzetan izango dituen ondorioei buruz sindikatuekin adostutako II. akordioa onartzen duena.
- AGINDUA, 2001eko urtarrilaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, EAEko Auzitegi Medikuntzako Erakundean hutsik dauden mediku forentseen lanpostuak betetzeko lehiaketarako deia ebazten duena.
- AGINDUA, 2001eko apirilaren 25ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, 1998ko azaroaren 19ko ebazpenaz deitutako hautaprobak gairitu dituzten auzitegietako medikuei destinuak emateko.
- AGINDUA, 2001eko uztailaren 5ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, auzitegiko medikuntzako euskal erakundean hutsik dauden zuzendari eta zuzendariorde lanpostuak izendapen libreko sistemaren bidez hornitzeko deialdia egiteko dena.

- AGINDUA, 2001eko irailaren 10ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Agindu honen bidez, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen hutsik dauden zuzendari eta zuzendariorde lanpostuak izendapen askeaz hornitzeko deialdia ebatzen da.
- AGINDUA, 2001eko abenduaren 27koa, Justizia Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, honen bitartez Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen auzitegiko medikuen lan-postu hutsak betetzeko leku-aldatze lehiaketa deitzen da.
- AGINDUA, 2002ko urtarrilaren 10ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Víctor Manuel Verano Zapatel jaunak, berak hala eskatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundearen Arabako Zuzendariordetzan duen zuzendariorde kargua utz dezala xedatzen duena.
- AGINDUA, 2002ko otsailaren 26koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundearen Laborategi Zerbitzuaren egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzeko.
- AGINDUA, 2002ko apirilaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen hutsik dauden auzitegiko medikuen lanpostuak betetzeko lehiaketarako deia ebatzen duena.
- AGINDUA, 2002ko uztailaren 17koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegoko oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- AGINDUA, 2002ko urriaren 1ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena. Agindu honen bidez Auzitegiko Medikuntzako euskal Erakundearen hutsik dauden zuzendariorde lanpostuak izendapen askeaz hornitzeko deialdia ebatzen da.
- 283/2002 DEKRETUA, abenduaren 3koa, izaera aldakorreko ordainsari-osagarria erregulatzen duena Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutuan euren zerbitzuak ematen dituzten Auzitegiko Medikuen esparruan.
- AGINDUA, 2002ko abenduaren 30ekoa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, 2002ko apirilaren 24ko lekualdatze-lehiaketari dagozkion destinoak emateko dena. Lehiaketa horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundearen lanpostu hutsak eskaini zitzaizkien Justizia Administrazioaren Ofizial edo Laguntzaileei.

- 12/2003 DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundea sortu zuen dekretuaz onartutako lanpostuen zerrendak aldatzeko dena.
- AGINDUA, 2003ko irailaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- AGINDUA, 2003ko irailaren 15ean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundean hutsik dauden auzitegiko medikuen lanpostuak betetzeko lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duena.
- AGINDUA, 2004ko otsailaren 17koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Medikuntzako Erakundean hutsik dauden auzitegiko medikuen lanpostuak betetzeko deitutako lekualdatze-lehiaketa ebazten duena.
- 394/2005 DEKRETUA, azaroaren 22koa, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea sortzen duen dekretua aldatzen duena.
- 315/2005 DEKRETUA, urriaren 18koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duena.
- 167/2005 DEKRETUA, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailtako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzeko dena.
- AGINDUA, 2005eko ekainaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegorako oposizioak prestatzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- EBAZPENA, 2005eko martxoaren 14koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, Justizia Administrazioiko auzitegiko medikuen, ofizialen, laguntzaileen eta agenteen kidegoetako lanpostu hutsak betetzeko bitarteko funtzionarioen lan-poltsen deialdia egiten duen 2003ko abenduaren 29ko Ebazpena aldatzen duena.
- EBAZPENA, 2005eko urtarrilaren 10ekoa, Giza Baliabideen zuzendariarena, lizentziak eta baimenak emateko prozedura eta gozatzeko modua ezartzeari buruzkoa.
- 1/2002 INSTRUKZIOA, 2002ko uztailaren 23koa, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarena eta Giza Baliabideen Zuzendaritzarena, AMEEren mendeko auzitegiko medikuen jardun tanatologiko pribatuen zerrendari buruzkoa.

- EBAZPENA, 2003ko ekainaren 13koa, Giza Baliabideen Zuzendaritzarena, AMEEko auzitegiko medikuen guardia zerbitzuaren gaineko instrukzioak aldatzeari buruzkoa.
- 394/2005 DEKRETUA, azaroaren 22koa, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea sortzen duen dekretua aldatzen duena.
- AGINDUA, 2006ko ekainaren 5koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- 223/06 DEKRETUA, 2006ko azaroaren 14koa, AMEE eratu zuen dekretuak onartutako lanpostuen zerrendak aldatzen dituena.
- AGINDUA, 2007ko ekainaren 18koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- EBAZPENA, 2007ko irailaren 13koa, Justizia sailburuordearena, Auzitegi Medikuntzako esparruan espertizazioaren gaineko ikastaro baterako asistente izateko hautapen-prozesua deia egiten duena.
- EBAZPENA, 2007ko irailaren 18, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarena, AMEEko Zuzendaritza Kontseiluko kide izateko hautapen-prozesua arautzekoa.
- EBAZPEAN, 2007ko azaroaren 19koa, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarena, AMEEko Zuzendaritza Kontseiluko kide hautatu gisa aldarrikatzen duena.
- FORMAZIO JARDUERAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEENTZAT.
- EBAZPENA, 2008ko apirilaren 4koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, tutoreen hautapen-prozesua dei egiten duena, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden kidegoetan sartzeko hautapen-ikastaroetarako.
- AGINDUA, 2008ko uztailaren 21koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Auzitegiko Medikuen Kidegorako oposizioak prestatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzen dituena.
- INSTRUKZIOA, Giza Baliabideen Zuzendaritzarena, autopsia laguntzaileen guardia sistema aldatzen duena, Bizkaiko Zuzendariordetzan.

- GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAK EMATEN DITUEN INSTRUKZIOAK AUZITEGIKO MEDIKUEN KIDEGOAN PRAKTIKETAN IZENDATUTAKO FUNTZIONARIOENTZAT, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN. 2008ko Azaroaren 27.
- AGINDUA, 2008ko abenduaren 10ekoa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, irailaren 15eko JUS/2979/2006 Aginduaz Euskal Autonomia Erkidegoan dei egindako hautaprobak gainditu dituzten Auzitegiko Medikuen Kidegoko funtzionarioei destinuak esleitzeko dena.
- EBAZPENA, 2009ko otsailaren 4koa, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendariarena. Horren bidez ABUI-en funtzioak Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko Klinika Zerbitzuei esleitzen zaizkie. Funtziok Genero-Indarkeriaren aurkako Neurrien 1/2004 Legeko 2. Xedapen Gehigarrian arautzen dira.
- EBAZPENA, 2009ko apirilaren 29koa, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendariarena, AMEEren katastrofe handietan Jarduteko Protokoloa onartzen duena.
- EBAZPENA, 2009ko apirilaren 30ekoa, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendariarena, giza hilketetan hilotza altxatzeko protokoloa eta hari dagozkion AMEEren idazki-ereduak onesten dituen.
- EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 13koa, Giza Baliabideen zuzendariarena, AMEEen destinaturik dauden auzitegiko medikuen guardia zerbitzuari buruzko INSTRUKZIOAK aldatzekoa.
- AGINDUA, 2010eko martxoaren 15ekoa, Herri Administrazio eta Justiziaren sailburuarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Auzitegiko Laborategiaren egitura eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duena.
- ORDEN JUS/1111/2010, apirilaren 21ekoa, Justizia Administrazioaren Kidego Bereziatako langileak hautatzeko Batzordea izendatzen duena.
- ORDEN JUS/1656/2010, 2010eko maiatzaren 31koa, Auzitegiko Medikuen Kidego Nazionalean libre sartzeko sistema orokorraren bidez sartzeko hautapen prozedurako dei egiten duena.
- EBAZPENA, 2011ko apirilaren 14koa, BJBko Zuzendaritzarena, AMEEko Bizkaiko Zuzendariordetzako Auzitegiko Patologia Zerbitzuko arduradunaren lanpostu hutsa betetzeko meritu-lehiaketa espezifikora dei egiten duena.

- JUSTIZIA SAILBURUORDEAREN ZERBITZU-AGINDUA, AMEE-n INTCF-ren PROTOKOLOA APLIKATZEARI BURUZ. PROTOKOLO HORI ADOPZIO IRREGULARRETAN ETA JAIORRIEN EBASKETA KASUETAN EGIN BEHARREKO IDENTIFIKAZIO GENETIKOARENA DA.
- EBAZPENA, 2011ko apirilaren 18koa, Justizia sailburuordearena, Auzitegiko Medikuntzaren esparruan espertizazio ikastarorako asistentegaiantzako hautapen prozedurara dei egitekoa.
- ORDEN JUS1216/2011, maiatzaren 4koa, Jurisdikzio Estataleko AME eratzten duena.
- ORDEN JUS 2186/2011, uztailaren 28koa, Jurisdikzio Estataleko Organoetako AMEn banakatutako lanpostuak hornitzeko meritu-lehiaketa espezifikora dei egiten duena.
- EBAZPENA, 2011ko irailaren 5koa, Estatuko Justizia idazkariarena, Auzitegiko Medikuen Elkartetako diru-laguntzak deitzeko.
- BOE, 2011ko irailaren 23koa, GERRA ZIBILEKO ETA DIKTADURAKO BIKTIMAK HILOBITIK ATERATZEKO ORDUAN JARDUTEKO PROTOKOLOARENA.
- ORDEN PRE/2568/2011, 2011ko urriaren 28koa, maiatzaren 31ko Orden JUS1656/2010-ren bidez deitutako CNMF-en sartzeko hautaprobetan gauditu zutenen izangaiak praktiketako funtzionarioak izendatzen dituena.
- 236/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua arautzen duena.
- 237/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzen dituena.
- AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 22koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena. Horren bidez Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Auzitegi-medikuen Kidegoko eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko lanpostu-funtzioengatiko eta/edo hizkuntzagatiko berariazko leihaketa deitzen da da.
- AGINDUA, 2013ko apirilaren 8koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena. Horren bidez Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Auzitegi-medikuen Kidegoko eskakizun bereziko lanpostuak betetzeko lanpostu-funtzioengatiko eta/edo hizkuntzagatiko berariazko leihaketa Balorazio Batzordea eratzten da.
- EBAZPENA, 2013ko ekainaren 11koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena. Horren bidez Zuzendaritzako, Zuzendariordetzetako, Zerbitzuko nagusien eta kudeatzaile arduradunaren lanpostuak finkatzen dira Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundean

- 355/2014 ED, martxoaren 16koa, Auzitegiako Medikuntzako Kontseilua eratzen eta arautzen duena.
- AGINDUA, 2014ko martxoaren 24koa, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuarena, Auzitegiako Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu generikoak betetzeko, Auzitegiako Medikuen Kidegoarentzat lekualdaketa-lehiaketarako dei egiten duena.
- ORDEN/JUS/639/2014, martxoaren 24koa, Auzitegiako Medikuntzako Erakundearen, INTCn eta auzitegien elkarteetan lanpostuak hornitzeko lehiaketarako dei egiten duena.
- EBAZPENA, 2014ko ekainaren 30ekoa, Justizia Administrazioaren sailburuordearena. Horren bidez AMEEko Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko kideak izendatzen dira.
- AGINDUA, 2014ko uztailaren 2koa, Herri Administrazio eta Justiziaren sailburuarena, horren bidez 2014ko martxoaren 24ko Aginduaren bidez egin zen AMEEko lekualdatze-lehiaketa ebatzen da.
- 139/2014 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen lanpostu-zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- EBAZPENA, 2014ko uztailaren 2koa, Estatuko Justizia idazkariarena. Horren bidez 1996ko abenduaren 5ekoa aldatzen da. Horren bidez, Justizia Administrazioaren eremuko lanaldiei buruzko jarraibideak ematen dira.
- Berrespen-agiria, giza-eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Hitzarmenari -giza-organoak eta -ehunak transplantatzearen arloan- egindako protokolo gehigarriarena, zein Estrasburgon sinatu baitzen 2002ko urtarrilaren 24an.
- EBAZPENA, 2015eko abenduaren 15ekoa, Justizia Administrazioaren zuzendariarena. Horren bidez behin-behinean ebatzen da berariazko merezimenduen lehiaketa Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen auzitegi-patologian aditutako auzitegi-medikuen lanpostuak betetzeko.
- AGINDUA, Herri Administrazio eta Justiziaren sailburuarena. Horren bidez deitzen da Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Auzitegi-medikuen Kidegoetarako, hizkuntza dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa.
- EBAZPENA, 2015eko irailaren 16koa, Justizia Administrazioaren zuzendariarena. Horren bidez argitara eman zen 2015/2016 euskara ikastaroetarako onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda.

- 35/2015 LEGEA, irailaren 22koa, zirkulazio-istripuetan pertsoneri eragindako kalte-galerak balioztatzeko sistema erreformatzekoa.
- INSTRUKZIOA, 2015eko urriaren 30ekoa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, 2015eko irailaren 11ko 10/2015 Errege Dekretuko 2. artikulua aplikatzeari buruzkoa.
- 1148/2015 Errege Dekretua, abenduaren 18koa. Horren bidez Auzitegiko Medikuntzako eta zientzia forentsetako erakundeek partikularren eskariz aditu-frogak egitea arautzen da, ibilgailu motordunen zirkulazioari buruzko gertakarien ondoriozko judizioz kanpoko erreklamazioetan. 2015eko abenduaren 19ko BOEn argitaratu zen.
- AGINDUA, 2016ko urtarrilaren 25ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuan 2015eko urriaren 15eko Aginduak deitutako berariazko lehiaketa ebazten duena.
- EBAZPENA, 2016ko apirilaren 4koa, Ikasketa Juridikoen Zuzendaritzarenena, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen gainean eskumena duten Autonomia Erkidegoetan destinatutako auzitegiko medikuntzako 2016ko Prestakuntza Jarraituko Planaren on lineko jardueretarako deialdiarena.
- EBAZPENA, 2016ko uztailaren 22koa, Justiziako sailburuordearena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuko Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordeko kideak izendatzen dituena.
- INSTRUKZIOA, 2016ko uztailaren 7koa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, auzitegiko medikuen guardia sistemari buruzkoa.
- INSTRUKZIOA, 2016ko uztailaren 19koa, Justizia Administrazioako zuzendariarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuaren Prestakuntzako Urteko Plana landu eta onartzeko prozedurari buruzkoa.
- DEKRETU-EGITASMOA, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua arautzen duen Dekretua aldatzeari buruzkoa.
- AGINDUA, 2017ko otsailaren 14koa, Lan eta Justizia sailburuarena, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzu perizialengatik salneurri publikoen muntak finkatzen dituena, noiz eta partikularren eskariz ibilgailu motordunen zirkulazioari buruzko egitateak direla-eta egindako judizioz kanpoko erreklamazioetan, eta beroriek likidatzeko arauak ematen dituena.
- 142/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Justizia Administrazioako zuzendaria izendatzekoa

- 140/2017 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzahitzarmena argitara ematea, Psikologiako Graduaren titulazioko ikasleek kanpoko praktika akademiko curricularrak burutzeko.
- 141/2017 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako lankidetzahitzarmena argitara ematea, Psikologia Sanitario Orokorreko Masterraren titulazioko ikasleek kanpoko praktika akademikoak egiteko.

AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA: HISTORIA, KOKAPENA ETA FUNTZIOAK.

Historia

AMEE Euskal Autonomia Erkidegoko epaileei, magistratuei, auzitegiei eta fiskalei laguntzeko organoa da. AMEEK aditu bidezko froga medikoak burutuko ditu, hala tanatologikoak nola klinikoak eta laborategikoak ere bai. Erakundearen egoitzan ezingo da ezerein jarduera tanatologiko ez eta perizial pribaturik egikaritu. Halaber, auzitegiko medikuntzarekin lotutako irakaskuntza-eta ikerkuntza-jarduerak egikaritu ahal izango ditu.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundea organo teknikoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren menpekoa da.

Egungo egitura kontuan hartuz, AMEE 2001eko urriaren 1ean sortu zen, EHAAn eta BOEn argitaratu zenean, hain zuzen. Hala ere, honen benetako funtzionamendua 2002ko urtarrilaren 15a arte atzeratu zen.

AMEEren egungo antolaketa-sistemak, bestalde, Espainiako Auzitegi Medikuntzaren aurreko antolaketa-ereduari jarraitzen dio. Eredu berri honen antolakuntza-oinarriak Auzitegiko Medikuen Kidego Nazionalaren Araudi Organikoan ezarri ziren, otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuan argitaraturik.

Lehengo banakako antolaketa-sistema zaharra, epaitegi bakarrerako edota epaitegi-talde baterako auzitegiko medikuek ematen zuten zerbitzua alegia, korporazio-eredu berri batek ordezkatu zuen honela. Sistema berri honen bidez, auzitegiko medikuak Auzitegi Medikuntzaren Erakundearen barnean daude, eta bertan bil daitezke probintzia bateko auzitegiko mediku guztiak edota, Euskal Erkidegoaren kasuan, Erkidego osokoak.

Erakunde berberaren zuzendaritza baten pean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Zuzendariordetzak elkartzen dira, eta haietako bakoitzaren jarduteko lurralde-eremua dagokion Lurralde Historikoa da. Euren egoitzak Gasteizen, Bilbon eta Donostian dituzte hurrenez hurren; funtzionalki AMEEren

menpean daude eta organikoki Bulego Judizial eta Fiskalaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzaren menpean. Zuzendariordetza bakoitza zuzendariorde batek zuzenduta dago eta hiru zerbitzu dauzka:

- a) Auzitegi Klinikako Zerbitzua.
- b) Patologiako Zerbitzua.
- c) Zerbitzu Erkide Orokorrak.

Auzitegi Patologiako Zerbitzuek ikerketa mediko-legala burutuko dute indarkeriazko heriotzen kasuetan nahi kriminaltasun-zantzurik duten heriotzen kasuetan, agintaritza judizialak agintzen duenetan. Baita hilotzen eta giza-gorpuzkiak identifikatzea ere.

Auzitegi Klinikako Zerbitzuek peritazio mediko-legalak egingo dituzte, lesionatuen aldizkako kontrola eta jardun prozesalen xede diren gorputz-kalteen balorazioa burutuko dituzte eta epaitegiaren esku dauden atxilotuen mediku-laguntza eta -zaintza ere bai. **Klinikaren Zerbitzuaren barruko unitate funtzional gisa OBFUak daude.** Auzitegi Patologiako Zerbitzuetan eta Auzitegi Klinikako Zerbitzuetan zerbitzuburu bat egon ahal izango da.

Zerbitzu Erkide Orokorrek euren administrazio-zerbitzuak ematen dituzte auzitegiko medikuei haien eginkizunen jardunean laguntza emanez.

Sail eta zerbitzu hauetan guztietan auzitegiko medikuak ez ezik beste medikuntza arloetako mediku espezialduak ere hartzen dituzte beren baitan, esaterako, anatomopatologoak, kimikoak, biologoak, gizarte langileak, goi-teknikariak, eta abar.

Gaur egun erabat garatua eta finkatua dago Anatomia Patologikoaren arloa hilotzen ehun guztien azterketa histopatologikoa (mikroskopikoa) egiteko, eta zenbaitetan teknika berezi batzuk erabiltzen dira, hala nola immunohistokimika.

Arlo hau zuzendariordetza edo lurralde bakoitzean (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban) dagoen auzitegiko patologia-zerbitzuaren barrukoa da. Lan eta Justizia Sailak AMEE sortu zuenetik ezarritako helburuak bete egin dira; hau da, **auzitegiko medikuen profesionalizazio espezializatua** lortzea hasiera-prestakuntzarako epe zabal baten bitartez eta gaur egun egiten den iraunkor baten bitartez.

Hau da egundo geureganatu dugun lorpenik handiena, Lan eta Justizia Sailari eskertu behar dioguna, AMEE aberastu duelako arlo tekniko eta zientifikoan.

Egun, laborategiko zerbitzua praktikan finkatuta dago azterketaren eta ikerketa kimiko-toxikologikoen gaietan, berme analitiko maximoekin. Bestela,

Auzitegi Medikuntzaren jardunak izan behar dituen bermeek, batez ere, Zigor-arloan, behartu egiten gaituzte Kalitatearen eta Baliabide Teknikoen kudeaketa-sistema bat izatera.

Ezarri da Auzitegiko Genetikaren Atala berez aztarna genetikoa aztertu ahal izateko bai Zigor Arloan (Kriminalistika) bai Zibileko arloan (Gurasotasunak).

Bigarren helburua **jerarkizazioarena** izan da, ezin hobeto diseinaturiko organigrama estruktural eta funtzional bat izanik.

Hirugarren helburua ezinbestekoa da gaur egun, eta sistema eta lan-metodo guztien **informatizazioa** da. Horretan Espediente Bakar Multimedia ezarri behar da kalitatearen kudeaketarako eta AMEEko Agenda berrirako lanabes gisa. Baita ere integratu beharko da gainerako barne aplikazio sistemekin, LIMS programa espezifikoa barne (AMEEko Laborategiko Zerbitzuaren laginen eta teknika analitikoaren kudeaketarako), baita epaitegiekin, auzitegiekin eta fiskaltzekin ere Justizia Baten bitartez. Kudeaketa administratiboa bateratu egingo da AMEEko zerbitzuetan BJB jarrita.

Azken helburua oso garrantzitsua da: **Zerbitzu Publiko** izatearena da hain zuzen ere. Gure Azken hartzailea gizartea da, eta beraz, harekin zordun gaude, berau baita gure funtsezko eginkizun hau egitea galdatzen diguna, hau da, Auzitegi Medikuntzaren jarduna egitea, Justizia Administrazioaren bidez.

Gaur egun badago bosgarren helburu bat, garatze-bidean dagoena eta **Kalitatea Kudeatzeko Sistema** deritzana.

AMEEren antolakuntza, bere osotasunean, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak diseinatu eta koordinatuko duen kalitatea kudeatzeko sistema baten menpe egongo da, Eusko Jaurlaritza baita Bulego Judizialaren eskumena duena. Sistema hori lankidetzan estuan arituko da auzitegiko medikuekin eta AMEEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileekin.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemak jarduera koordinatua sustatuko du, betiere batasunaren eta uniformetasunaren irizpideekin bat; hala nola planifikazioa, helburuen erdiespen-neurketa, disfuntzioen analisia eta AMEEren etengabeko hobekuntzaren aldeko zuzenketa-neurriak hartzea.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen Koordinazio eta Hobekuntza Batzorde bat eratzen da, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendariak eta zuzendariordeak osatua, gehi Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen destinatutako Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileen hiru ordezkariak, eta Bulego Judizial eta Fiskalaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzako ordezkariak batek, honako helburu honekin, hau da, AMEEren etengabeko hobekuntzan eta haren



Auzitegi - Medikuntzako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Medicina Legal

Zuzendaritza-Dirección
Barroeta-Aldamar, 10
48001 Bilbao

jardunbide egokian inplikaturiko alderdien arteko koordinazioa eta lankidetzaz sustatzea.

Kokapena

AMEEren egoitza nagusia Bilbon dago. Duen antolaketa geografikoa hiru zuzendariordetzetan banatzen da Erkidego Autonomoko hiru lurraldeak bere baitan hartuz; Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba. Zuzendariordetza bakoitzaren egoitzak, era berean, hiru lurraldeetako hiriburuetan lekutzen dira: Bilbon, Donostian eta Gasteizen. Lurraldeko egoitza bakoitzaren inguruan, zuzendariordetza bakoitzak lokal batzuk ditu bere lurraldeko barruti judizial bakoitzean banatuta, eta bertan, auzitegiko medikuek barruti judizial bakoitzeko auzitegiko Klinikako kontsultak egiten dituzte.

Praktika tanatologikoei dagozkien jarduketak hiru egoitzetako (Bilbo, Gasteiz eta Donostia) Auzitegiko Patologia Zerbitzuetan zentralizatzen dira.

Bizkaiko Zuzendariordetzak bi zerbitzu propio ditu: Auzitegiko Klinika eta Auzitegiko Patologia. Zerbitzu horietako lehena buruzagitza erkide baten mende dauden hiru sailetan azpizatitua dago: Auzitegiko Psikiatria-ABIU, Auzitegiko Klinika Orokorra eta Auzitegiko Traumatologia.

Auzitegiko Patologia Zerbitzuak bi atal ditu: hiltzak hartzeko eta autopsiak egiteko atala, hala nola histopatología atala, non autopsietan erazitako erraien laginak prestatzen baitira, geroago prozesatu eta mikroskopiaren bidez ikuskatzeko.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren egoitza izanda, zuzendariordetza horrexetan dute beren egoitza bai AMEEren Zuzendaritzak, bai, Zuzendaritzaren zuzeneko koordinazioaren pean, hiru zuzendariordetzei zerbitzua ematen dien Auzitegiko Laborategi Zerbitzuak.

Bizkaiko Zuzendariordetzak Auzitegiko Patologia Zerbitzua du Bilbon, Barroeta Aldamar kalean, 8. zenbakian (telefonoa: 94 401 67 31); Auzitegiko Klinika zerbitzuarena (telefonoa: 94 401 64 84), berriz, Buenos Aires kalean, 6 zenbakian. **Guztira, 65 profesional dira: auzitegi-medikuak, administrazio-langileak eta lan kontratadun langile teknikoak.**

Gipuzkoako Zuzendariordetzak, aurrekoaren antzera, bi zerbitzuz osatutako egitura bat du: Auzitegiko Klinika, hiru sail dituen (Psikiatria-ABIU, Klinika Orokorra eta Traumatologia) eta Auzitegiko Patologia Zerbitzua. Gipuzkoako Zuzendariordetzaren egoitza, bestalde, Donostian dago, Teresa de Calcuta kalean, 1 zenbakian (telefonoa: 943 00 43 50). **Guztira, 37 profesional dira: auzitegi-medikuak, administrazio-langileak eta lan kontratadun langile teknikoak.**

Arabako Zuzendariordetzak ere bi zerbitzu ditu: Auzitegiko Klinika, hiru sail dituen (Psikiatria-ABIU, Klinika orokorra eta Traumatologia) eta

Auzitegiko Patologia Zerbitzua. Zuzendariordetzaren egoitza Gasteizen dago, Gasteizko Etorbidean, 1 zenbakian (telefonoa: 945 00 48 92). **Guztira, 19 profesional dira: auzitegi-medikuak, administrazio-langileak eta lan kontratadun langile teknikoak.**

Psikiatriako sail bakoitzak **ABIU** (Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitate) **bat du, jenero-indarkeriaz eta familiarteko indarkeriaz arduratzen dena.**

Laborategiko Zerbitzuak, AMEEren Zuzendaritzarekiko zuzeneko mendekotasuna duenak, Kimika-Toxikologia-Analisi Klinikoak izeneko Sail bat du, non aztertzen diren alkoholak, drogak, psikofarmakoak, medikamentuak, metalak eta abar; azterketaren ondoren, emaitzak baloratzen dira eta izaera perizialeko irizpena ematen da, aditu-izaera duena. **Guztira, 7 profesional dira: auzitegi-medikuak, administrazio-langileak eta lan kontratadun langile teknikoak.**

AMEEren plantilla osoa **127 profesionalak** osatzen dute: batetik, langile funtzionarioak; bestetik, lan kontratadun langileak. Ondoko lanbidea dute: **54 auzitegi-mediku, horietako 28, hainbat jakintzagaitan adituak dira, 42 administrazio-langile, 12 autopsia-laguntzaile, 2 fakultatibo, 6 psikologo, 4 gizarte-langile eta 7 laborategiko teknikari.**

Funtzioak

Hiru Zuzendaritzaordetzetan, berez, laugarren zerbitzu bat ere



badago: **Guardia Zerbitzua**. Zerbitzu horretan bederatzi auzitegi-mediku daude hiru lurralde historikoetarako, 24 orduko txandetan. Zerbitzu horietan larrialdi forentseen zerbitzua eskaintzen da. Batez ere honako bi hauek dira:

Batetik, gertalekuan hilotza altxatzea deritzona; bestetik, mediku-azterketak egitea erasoen, etxeko tratu txarren, genero-indarkeriaren edota sexu-erasoen biktima izan direnei, baita atxilotuari laguntza ematea ere.

Patologia Zerbitzuetan,

indarkeriazko heriotzen edo kriminalitate-susmoa pizten duten heriotzen ondoriozko autopsiak egiten dira, baita berezko heriotzenak, egiaztatu gabeko heriotzen ondoriozkoak eta bat-batekoen ondoriozkoak ere. Gorpuaren azterketa zehatza eta metodikoa egiten da, ehunen geroagoko azterketa mikroskopikoa barne hartzen duena. Bestalde, aztertu beharreko laginak bidaltzen ditugu gure laborategira, bertan azterketa kimiko-toxikologikoak egin ditzaten: odol-laginak, humore beirakara, gernua, eta abar. **Klinika**

Zerbitzuetan, Klinika Orokorreko zein Traumatologia Ataletan, trafiko- nahiz lan-istripuetan, erasoetan eta ustekabeko istripuetan jasandako lesioak aztertzen dira. Oro har, indarkeriazko egintza batek eragindako lesio oro aztertu eta baloratu behar du auzitegi-medikuak.

Psikiatria atalean, zigor-arloan, miaketa psikiatrikoak eta psikologikoak egiten zaizkie sexu-erasoen, etxeko tratu txarren biktimei, tratu txarrak jasandako umeei eta emakumeei, eta ustezko erasotzaileei.

Arlo zibilean, patologia psikikoa duten pazienteak aztertzen dira, berorien legezko ezgaitze-demandak edo legezko tutorea izendatzeko demandak aurkezten direnean, edota pazienteak beren borondatearen aurka zentro psikiatrikoetan barneratzeko eskaerak, eta abar.

Psikiatria-ataletan, lankidetzan ari dira psikiatrian adituak diren auzitegi-medikuak eta psikologoez zein gizarte-langileez osaturik dauden diziplina anitzeko ekipoak. Azken hauek ere Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Justizia Sailaren mendean daude. Hemen sartuta daude genero-indarkeria eta familiarteko indarkeriaren ardura duten ABIU direlakoak.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak **Auzitegiko Laborategi Zerbitzua** sortu zuen, bi arlo nagusiz hornitua:

Arlo kimiko-toxikologikoa eta azterketa klinikoena, non era progresiboan, nagusiki, analizatzen hasi diren alkoholak, abusuzko drogak, psikofarmakoak, sendagaiak eta elementu ez-organikoak.

Horretarako, Auzitegiko Laborategi Zerbitzua orientazio-teknikez baliatzen da, adibidez: **entzimo immunosai**o delakoa, baita diagnostikoa baieztatzeko teknikez, hala nola **gasen kromatografia sugar-detektagailudun burua dagoen espazioan, masa-espektrometriadun gasen kromatografia, masa-espektrometriadun goi-presioko likidoen kromatografia, CoHb-ren zehaztapena (carboxihemoglobina), Igorpen Atomikoko Espektrofotometria ICP-MASAS (akoplamendu induktibo bidezko plasma)**. Halaber, Auzitegi-Genetikaren Atala aipatu behar da, gaur egun geldiera teknikoan egon arren.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren buru zuzendaria izango da eta zuzendariordeek, zerbitziburuek, hala nola zuzendariordetza bakoitzeko auzitegiko mediku batek, lan-legepeko langileen ordezkari batek eta AMEEko Administrazio-Zerbitzuen kudeatzaile arduradun batek osaturik izango da.


Zuzendaritza Kontseiluak proposaturik, **Irakaskuntza eta Ikerketa Batzorde** bat eratu ahal izango da Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen aholkularitza-organo gisa, zeina euren jarduera-arloan – medikuntza, kimika, bioetika eta abarren- adituak izango diren pertsonak

osaturik izango baita, eta haren buru katedratiko bat edo unibertsitateko irakasle bat egongo da.

Irakaskuntza Unitateak, funtzionalki zuzendariaren mendean dagoela, Auzitegiko Medikuntzarekin lotututako formazio-jarduerak sustatuko ditu, beste erakunde eta interes-entitate batzuekiko elkarlanean. Unitate honek Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordean hartutako erabakietan oinarriturik jardungo du, hala nola Zuzendaritzak sustatutako bestelako jarduera-lerro batzuen arabera ere. Bai Zuzendaritza Kontseilua bai Irakaskuntza eta Ikerketa Batzordea AMEEren aholkularitza-organoak izango dira.



AMEE-REN EGUNGO EGITURA ORGANIKOA.





AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA

JARDUERAK ZUZENDARIORDETZAKA

[Arabako AMEEren jarduera](#) (Klinikako Z./ Patologiako Z.).

[Bizkaiko AMEEren jarduera](#) (Klinikako Z./ Patologiako Z.).

[Gipuzkoako AMEEren jarduera](#) (Klin. Z./ Patologiako Z.).

AMEEren jarduera globala EAEn

Auzitegi Patologiako Zerbitzua

Auzitegi Klinikako Zerbitzua

PATOLOGIA ZERBITZUA. Histopatologiako Atala

LABORATEGIKO ZERBITZUA. Kimika-Toxikologiako eta
Azterketa Klinikoko Atala


Arabako Zuzendariordetza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua.

Kontzeptuak		Espediente Judizialak		%
		2016	2017	
	Kodigoak			
Trafiko-istripua	ACT	70	101	44,29%
Lan- istripua	ACL	23	15	-34,78%
Ustekabeko istripua	ACC	10	9	-10,00%
Genero-indarkeria bidezko Eraso	AMU	197	171	-13,20%
Etxeke Indarkeria bidezko Eraso	ADO	101	107	5,94%
Sexu-erasoa	AGS	47	72	53,19%
Oinarrizko Eraso	AGR	893	859	-3,81%
Psikiatrikoa Genero-Indarkeria	PMU	114	160	40,35%
Psikiatrikoa Etxeke Indarkeria	PDO	51	49	-3,92%
Psikiatrikoa Egozgarritasuna	PIM	154	170	10,39%
Psikiatriko Orokorra	PSI	866	857	-1,04%
Toxikomania	TOX	75	74	-1,33%
Adinaren zehaztapena	DEP	41	46	12,20%
Inkomunikaturiko atxilotuak	DIN	0	0	0 %
Erantzukizun medikoa	AM	7	4	-42,86%
Bestelakoak	VAR	48	91	89,58%
GUZTIRA		2697	2785	3,26%
Judiziorako zitazioak		825	846	2,55%

Arabako Zuzendariordetza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua




Arabako Zuzendariordetza

Auzitegi Patologiako Zerbitzua. Heriotzak guztira:

	Berezko heriotzak	Indarkeriazko heriotzak	Trafiko-istripua	Ust.kko istripua	Giza hilketa	Lan-istripua	Buru-hilketa	Aztertzen	Azaldu gabe
2016	66	60	15	19	1	2	23	2 ¹	3
2017	71	72	12	22	0	4	21	10	3 ²

Jarduera orokorraren balorazioa 2016 – 2017: 27,58%



¹ 2017. urtean aztertu diren bi heriotzak berezkoak izan dira.

² 2017. urtean azaldu gabeko 3 heriotzek indarkerian dute jatorria, baina ezin izan da haien tipologia zehaztu.


Bizkaiko Zuzendariordetza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua

Kontzeptuak		Espediente Judizialak		%
		2016	2017	
	Códigos			
Trafiko-istripua	ACT	653	413	-36,75%
Lan- istripua	ACL	95	66	-30,53%
Ustekabeko istripua	ACC	29	34	17,24%
Genero-indarkeria bidezko Eraso	AMU	370	434	17,30%
Etxeko Indarkeria bidezko Eraso	ADO	284	274	-3,52%
Sexu-erasoa	AGS	170	265	55,88%
Oinarrizko Eraso	AGR	5168	4850	-6,15%
Psikiatrikoa Genero-Indarkeria	PMU	594	690	16,16%
Psikiatrikoa Etxeko Indarkeria	PDO	416	438	5,29%
Psikiatrikoa Egozgarritasuna	PIM	353	235	-33,43%
Psikiatriko Orokorra	PSI	3528	4316	22,34%
Toxikomania	TOX	709	723	1,97%
Adinaren zehaztapena	DEP	21	58	176,19%
Inkomunikaturiko atxilotuak	DIN	1	0	-100,00%
Erantzukizun medikoa	NEG	15	34	126,67%
Bestelakoak	VAR	425	561	32,00%
GUZTIRA		12831	13391	4,36%
Judiziorako zitazioak		1717	1612	-6,12%

Bizkaiko Zuzendariordetza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua




Bizkaiko Zuzendariordetza

Auzitegi Patologiako Zerbitzua. Heriotzak guztira

	Berezko heriotzak	Indarkeriazko heriotzak	Trafiko-istripua	Ustekabeko istripua	Giza hilketa	Lan-istripua	Buru-hilketa	Aztertzen	Azaldu gabe
2016	343	275	29	148	6	9	83	1³	3⁴
2017	355	268	17	141	6	6	98	11⁵	9⁶

Jarduera orokorraren balorazioa 2016 – 2017: 0,95 %



³ Emaiza kimiko-toxikologikoak falta

⁴ Hezurkiak

⁵ Emaiza kimiko-toxikologikoak falta

⁶ Hezurkiak


Gipuzkoako Zuzendariordeztza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua

Kontzeptuak		Espediente Judicialak		%
		2016	2017	
	Kodeak			
Trafiko-istripua	ACT	177	213	20,34%
Lan- istripua	ACL	15	30	100,00%
Ustekabeko istripua	ACC	19	11	-42,11%
Genero-indarkeria bidezko Eraso	AMU	269	313	16,36%
Etxeko Indarkeria bidezko Eraso	ADO	160	190	18,75%
Sexu-erasoa	AGS	44	56	27,27%
Oinarrizko Eraso	AGR	1844	1971	6,89%
Psikiatrikoa Genero-Indarkeria	PMU	534	491	-8,05%
Psikiatrikoa Etxeko Indarkeria	PDO	174	149	-14,37%
Psikiatrikoa Egozgarritasuna	PIM	136	162	19,12%
Psikiatriko Orokorra	PSI	825	922	11,76%
Toxikomania	TOX	232	239	3,02%
Adinaren zehaztapena	DEP	21	36	71,43%
Inkomunikaturiko atxilotuak	DIN	0	0	0,00%
Erantzukizun medikoa	NEG	8	7	-12,50%
Bestelakoak	VAR	261	321	22,99%
GUZTIRA		4.719	5.111	8,31%
Judiziorako zitazioak		749	688	-8,14%

Gipuzkoako Zuzendariordetza

Auzitegi Klinikako Zerbitzua




Gipuzkoako Zuzendariordetza

Auzitegi Patologiako Zerbitzua. Heriotzak guztira

	Berezko heriotzak	Indarkeriazko heriotzak	Trafiko-istripua	Ustekabeko istripua	Giza hilketa	Lan-istripua	Buru-hilketa	Aztertzen	Azaldu gabe
2016	70	125	33	35	0	5	52	35	1
2017	59	109	21	38	1	7	42	72	0


Jarduera orokorraren balorazioa 2016 – 2017: -28,51 %



AMEE-REN JARDUERA GLOBALA EAE-N


Berezko heriotzak

Berezkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017	71	355	59	485




Indarkeriazko heriotzak

Indarkeria	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
2017	72	268	109	449



Heriotzak guztira


Heriotzak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Guztira	143	623	168	934



Auzitegi Klinikako Zerbitzuak. Jarduera globala.


Kontzeptuak		Espediente Judizialak		%
		2016	2017	
	Kodeak			
Trafiko-istripua	ACT	900	727	-19,22%
Lan- istripua	ACL	133	111	-16,54%
Ustekabeko istripua	ACC	58	54	-6,90%
Genero-indarkeria bidezko Eraso	AMU	836	918	9,81%
Etxeko Indarkeria bidezko Eraso	ADO	545	571	4,77%
Sexu-erasoa	AGS	261	393	50,57%
Oinarrizko Eraso	AGR	7905	7680	-2,85%
Psikiatrikoa Genero-Indarkeria	PMU	1242	1341	7,97%
Psikiatrikoa Etxeko Indarkeria	PDO	641	636	-0,78%
Psikiatrikoa Egozgarritasuna	PIM	643	567	-11,82%
Psikiatriko Orokorra	PSI	5219	6095	16,78%
Toxikomania	TOX	1016	1036	1,97%
Adinaren zehaztapena	DEP	83	140	68,67%
Inkomunikaturiko atxilotuak	DIN	1	0	-100,00%
Erantzukizun medikoa	NEG	30	45	50,00%
Bestelakoak	VAR	734	973	32,56%
GUZTIRA		20247	21287	5,14%
Judiziorako zitazioak		3291	3146	-4,41%

Auzitegi Klinikako Zerbitzuak. Jarduera globala.



Auzitegi Patologiako Zerbitzuak. Jarduera globala.

	Heriotzak guztira	Berezkoak	Indarkeria	Trafiko-istripua	Ustekabeko istripua	Giza-hilketa	Lan-istripua	Buru-hilketak	Aztertzen	Azaldu gabe
2016	982	479	460	77	202	7	16	158	38 ⁷	7
2017	1036	485	449	50	201	7	17	161	93	12 ⁸
%	+5,50	+1,25	-2,39	-35,06	-0,50	0	+6,25	+1,90	+144,74	+71,43




⁷ 2017. urtean aztertu diren bi heriotzak berezkoak izan dira.

⁸ 2017. urtean azaldu gabeko 3 heriotzek indarkerian dute jatorria, baina ezin izan da haien tipologia zehaztu.

PATOLOGIA ZERBITZUAK: HISTOPATOLOGIAKO ATALAK


Prestakin histopatologikoak	2014	2015	2016	2017
ARABA	5.273	6.623	5.476	5.053
BIZKAIA	16.450	13.133	13.696	14.534
GIPUZKOA	8.040	9.100	5.500	6.000
GUZTIRA	29.763	28.856	24.672	25.587



AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA -TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA


KASU KOPURUA	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	965	878	933	1003	1095



AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA –TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA


KASU KOPURUA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Klinika	Patologia	Klínika	Patologia	Klínika	Patologia
BANAKETA	22	104	179	455	80	203



AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA -TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA


KANPOKO KALITATE KONTROLA (LABORATEGIARTEKOA)	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	27	29	34	35	38



AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA –TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA

ZEHAZTAPEN ANALITIKOAK	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	77.117	67.101	70.730	72.564	76.027




AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA –TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA

ENTZIMOIMMUNO SAIOAREN ANALISIA (SCREENING)

Azterketako Zehaztapen Analitikoak	2013	2014	2015	2016	2017
GUZTIRA	60.573	57.480	59.770	62.803	65.608




AUZITEGIKO LABORATEGIAREN ZERBITZUA

KIMIKA –TOXIKOLOGIAKO ETA ANALISI KLINIKOETAKO SEKZIOA

ANALISI KROMATOGRAFIKOAK (BERRESPENEOAK)

Berrespeneko Zehaztapen Analitikoak	2013	2014	2015	2016	2017
GC-HS-FID	2.195	2.060	1.967	2.023	2.052
GC-MS	1.103	565	414	478	413
LC-MS-MS	13.192	6.955	8.553	7.199	7.877
IR-FTR	22	20	6	10	0
UV-VIS	32	21	20	51	77
GUZTIRA	16.544	9.621	10.960	9.761	10.419





Auzitegi - Medikuntzako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Medicina Legal

Zuzendaritza-Dirección
Barroeta-Aldamar, 10
48001 Bilbao
